

03. GAIA.

AZIDO-BASE. SISTEMAK

pH-ariketak

Farmaziako gradua 1. maila

Kimika Orokorra eta Ez-organikoa

2019/20 kurtsoa



Ariketa 1


10,7 g amonio kloruro uretan disolbatzen dira 2L-ko disoluzio bat bete arte. Kalkulatu disoluzio honen:

a) pH-a

b) Azido azetikoaren disoluzio baten kontzentrazioa pH berbera izan dadin.


Datuak: $P_a: N: 14u, H: 1u, Cl: 35,5u. K_a(HAc/Ac^-) = 10^{-4.65} K_a(NH_4^+/NH_3) = 10^{-9.55}$

a) Azido ahulaz eta ez-basez osatutako gatzak dugu, erabat disoziatuta.



$$[NH_4^+] = [NH_4Cl] = [10,70 \text{ g} / 53,5 \text{ g mol}^{-1}] \text{ mol} / 2 \text{ L} = 0,1 \text{ M}$$


Hidrolisia:



$$K_a(NH_4^+/NH_3) = 10^{-9.55} = 2,81 \cdot 10^{-10}$$

$$K_a = [NH_3][H_3O^+] / [NH_4^+] = x^2 / 0,1-x \rightarrow x = 5,29 \cdot 10^{-6} \text{ M} \rightarrow \text{pH} = 5,27$$

b) pH berbera izateko: $[H_3O^+] = 5,29 \cdot 10^{-6} \text{ M}$



Oreka planteatuz, x jakinda dela kontuan izanda,

$$K_a = [Ac^-][H_3O^+] / [HAc] = x^2 / C-x \rightarrow C = 1,25 \cdot 10^{-6} \text{ M}$$

Beraz, $[HAc] = 1,25 \cdot 10^{-5} \text{ M}$



Ariketa 2

Ondoko erreakzioetan aukeratu zeintzuk diren azidoak eta zeintzuk baseak:

- $\text{HF} + \text{H}_2\text{O} \leftrightarrow \text{F}^- + \text{H}_3\text{O}^+$
- $\text{HSO}_4^- + \text{NH}_3 \leftrightarrow \text{SO}_4^{2-} + \text{NH}_4^+$
- $\text{C}_2\text{H}_3\text{O}_2^- + \text{HCl} \leftrightarrow \text{HC}_2\text{H}_3\text{O}_2 + \text{Cl}^-$

-
- Azidoak: HF eta H_3O^+
 - Azidoak: HSO_4^- eta NH_4^+
 - Azidoak: HCl eta $\text{HC}_2\text{H}_3\text{O}_2$
Beste espezieak baseak dira

Ariketa 3

535 ml HCl(g) (26,5 °C eta 747 mmHg) uretan disolbatzen badira, 625 mL-ko disoluzio bat lortzeko, zein izango da disoluzio honen pHa?

Datuak: R = 0,082 l atm/mol K

Estrategia: HCl mol kopurua bilatu behar ditugu, gero kontzentrazioa eta handik pHa.

$$PV = nRT$$

$$747 \text{ mmHg} \cdot \frac{1 \text{ atm}}{760 \text{ mmHg}} \cdot 0,535 \text{ L} = n \cdot 0,082 \text{ atm} \cdot \text{L/mol K} \cdot (273 + 26,5) \text{ K}$$

$$n = 0,0214 \text{ molak}$$

$$M = 0,0214 \text{ mol} / 0,625 \text{ L} = 0,034 \text{ M}$$

$$\text{pH} = -\log(0,034) \text{ (HCl sendoa delako)} = \mathbf{1,46}$$

Ariketa 4

0,01 M den cianuro amonikozko disoluzio baten pHa kalkula ezazu.

Datuak: $K_a(\text{HCN}/\text{CN}^-) = 10^{-9,1}$; $K_a(\text{NH}_4^+/\text{NH}_3) = 10^{-9,55}$



Estrategia: hemen bi hidrolisi aldi berean gertatzen dira. Nola egiten dira horrelako ariketak ?

Bi aukera ditugu:

- Hidrolisi bakoitza bere kabuz planteatzea
- Gutzizko erreakzioa kalkulatzea

Hemen egingo dugu ohiko metodoaz, gatzen bi ioien hidrolisia planteatuz eta oreka hauetatik sortutako hidronio eta hidroxilo ioien arteko neutralizazio erreakzioa planteatuz. Honela haietariko batetik gehigizko edo gutxienezko dagoen azter ditzagun eta ondorioz pHa kalkula dezakegu. (ikusi 6.c ariketa)


Hasteko :



Erreakzio hauek gertatzen dira:





$$[\text{H}_3\text{O}^+] = \sqrt{c_a K_a} = 1,68 \cdot 10^{-6}$$



$$[\text{OH}^-] = \sqrt{c_b K_b} = 3,54 \cdot 10^{-4}$$


Neutralizazio erreakzioa :



$$[\text{OH}^-] = 3,53 \cdot 10^{-4} \rightarrow \text{pOH} = 3,45 \rightarrow \text{pH} = 10,54$$

Ariketa 5

Adierazi ondoko espezie kimiko bakoitzaren izaera azidoa, basikoa edo anfoterikoa, urarekin erreazioaraztean: HNO_2 , PO_4^{3-} , HCO_3^- . Gertatzen diren erreazioak idatzi. (Iradokizun: lau erreazio dira beharrezkoak).



Ariketa 6

Kalkulatu ondoko disoluzioen pHa:

a) $c_{\text{NH}_3} = 10^{-1} \text{ M}$

b) $c(\text{NH}_4\text{Cl}) = 0.1 \text{ M}$

c) $c(\text{NH}_4\text{Az}) = 0.1 \text{ M}$

Datuak: $K_a(\text{HAc}/\text{Az}^-) = 10^{-4.65}$ $K_a(\text{NH}_4^+/\text{NH}_3) = 10^{-9.55}$

a) **Estrategia: base ahul batez osatutako sistema da:** $K_b(\text{NH}_4^+/\text{NH}_3) = 10^{-4.45}$



1. Masa-balantzea: $c_{\text{NH}_3} = 10^{-1} \text{ M} = [\text{NH}_3] + [\text{NH}_4^+]$

2. Karga-balantzea: (karga positiboak = karga negatiboak) $[\text{NH}_4^+] + [\text{H}_3\text{O}^+] = [\text{OH}^-]$


3. Uraren biderkadura ionikoa: $10^{-14} = [\text{H}_3\text{O}^+] [\text{OH}^-]$

4. Orekaren konstantea: $K_b = \frac{[\text{NH}_4^+][\text{OH}^-]}{[\text{NH}_3]}$

Beraz 4 ezezagun eta 4 ekuazio ditugu eta **hurbilketa** bat egingo dugu.

Protolito nagusia NH_3 denez, $[\text{H}_3\text{O}^+] < 10^{-7} \text{ M}$ eta $[\text{OH}^-] > 10^{-7} \text{ M}$; beraz,

$[\text{NH}_4^+]$ -arekin konparatuz $[\text{H}_3\text{O}^+]$ mesprezatu egingo dugu karga balantzean; horrela,




Orduan, laugarren ekuazioan ordezkatzuz:

$$K_b = \frac{[\text{NH}_4^+][\text{OH}^-]}{[\text{NH}_3]} = \frac{[\text{NH}_4^+][\text{OH}^-]}{c_{\text{NH}_3}} = \frac{[\text{OH}^-]^2}{c_{\text{NH}_3}}$$

$$[\text{OH}^-] = 10^{-2.73} \Rightarrow [\text{H}_3\text{O}^+] = 10^{-11.27} \Rightarrow \text{pH} = 11.27$$

b) Estrategia: azido ahul batez osatutako sistema da



NH_4^+ azido ahula da $K_a(\text{NH}_4^+/\text{NH}_3) = 10^{-9.55}$

Cl^- ez basea da, beraz, $c(\text{Cl}^-) = [\text{Cl}^-]$



1. Masa-balantzea: $c(\text{Cl}^-) = [\text{Cl}^-] = c(\text{NH}_4^+) = 10^{-1} \text{ M} = [\text{NH}_4^+] + [\text{NH}_3]$

2. Karga-balantzea: $[\text{NH}_4^+] + [\text{H}_3\text{O}^+] = [\text{OH}^-] + [\text{Cl}^-]$

3. Uraren biderkadura ionikoa: $10^{-14} = [\text{H}_3\text{O}^+][\text{OH}^-]$

4. $K_a = \frac{[\text{NH}_3][\text{H}_3\text{O}^+]}{[\text{NH}_4^+]}$ 4 ezezagun eta 4 ekuazio

Beraz 4 ezezagun eta 4 ekuazio ditugu eta **hurbilketa** bat egingo dugu.


1. hurbilketa, Karga-balantzean: $[\text{OH}^-] \ll [\text{Cl}^-]$, beraz, $[\text{NH}_4^+] + [\text{H}_3\text{O}^+] \approx [\text{Cl}^-]$

Orain masa-balantzearekin konparatuz $[\text{NH}_4^+] + [\text{NH}_3] = [\text{Cl}^-]$

Beraz, $[\text{H}_3\text{O}^+] \approx [\text{NH}_3]$ eta $c(\text{NH}_4^+) \approx [\text{NH}_4^+]$ (oso azido ahula delako)

$$K_a = \frac{[\text{NH}_3][\text{H}_3\text{O}^+]}{[\text{NH}_4^+]} = \frac{[\text{H}_3\text{O}^+]^2}{c(\text{NH}_4^+)} \Rightarrow [\text{H}_3\text{O}^+] = 10^{-5.27} \Rightarrow \text{pH} = 5.27$$

c) Estrategia: azido ahul batez eta base ahul batez osatutako sistema da.







NH_4^+ azido ahula da, $K_a(\text{NH}_4^+/\text{NH}_3) = 10^{-9.55}$

Az^- base ahula da, $K_a(\text{HAz}/\text{Az}^-) = 10^{-4.65}$, beraz, $K_b(\text{Az}^-/\text{HAz}) = 10^{-9.35}$

Hona hemen bi hidrolisi oreka



Ekuazioak:

$$1.\text{masa-balantzea: } c(\text{NH}_4^+) = 10^{-1}\text{M} = [\text{NH}_4^+] + [\text{NH}_3]$$

$$c(\text{Az}^-) = 10^{-1}\text{M} = [\text{Az}^-] + [\text{HAz}]$$

$$2.\text{karga-balantzea: } [\text{NH}_4^+] + [\text{H}_3\text{O}^+] = [\text{OH}^-] + [\text{Az}^-]$$

$$1.\text{ erreakzioaren arabera: } [\text{NH}_3] \approx [\text{H}_3\text{O}^+]_1$$

$$K_a(\text{NH}_4^+/\text{NH}_3) = \frac{[\text{NH}_3][\text{H}_3\text{O}^+]_1}{[\text{NH}_4^+]} = \frac{([\text{H}_3\text{O}^+]_1)^2}{c(\text{NH}_4\text{Ac})}$$

$$2.\text{ erreakzioaren arabera: } [\text{HAz}] \approx [\text{OH}^-]_2$$

$$K_b(\text{Ac}^-/\text{HAc}) = \frac{[\text{HAc}][\text{OH}^-]_2}{[\text{Ac}^-]} = \frac{([\text{OH}^-]_2)^2}{c(\text{Ac}^-)} = \frac{([\text{OH}^-]_2)^2}{c(\text{NH}_4\text{Ac})}$$

Beraz, kalkula ditzakegu $[\text{H}_3\text{O}^+]_1$ eta $[\text{OH}^-]_2$ kontzentrazioak:

$$[\text{H}_3\text{O}^+]_1 = \sqrt{c(\text{NH}_4\text{Ac}) \cdot K_a(\text{NH}_4^+/\text{NH}_3)}$$

$$[\text{OH}^-]_2 = \sqrt{c(\text{NH}_4\text{Ac}) \cdot K_b(\text{Ac}^-/\text{HAc})}$$

Bi egoera hauek gerta daitezke, bai ezkerrezko zutabekoa bai eskuinekoarena, segun eta konstanteen baloreak. Jarraian, neutralizazioa planteatu dezakegu: $\text{H}_3\text{O}^+ + \text{OH}^- \Rightarrow 2 \text{H}_2\text{O}$, jakiteko zein izango den soberazkoa eta ondorioz zein pHa izango dugun.

$[\text{H}_3\text{O}^+]_1 > [\text{OH}^-]_2$ baldin bada			$[\text{H}_3\text{O}^+]_1 < [\text{OH}^-]_2$ baldin bada		
Espeziea	H_3O^+	OH^-	espeziea	H_3O^+	OH^-
Hasieran	$[\text{H}_3\text{O}^+]_1$	$[\text{OH}^-]_2$	hasieran	$[\text{H}_3\text{O}^+]_1$	$[\text{OH}^-]_2$
amaieran	$[\text{H}_3\text{O}^+]_1 - [\text{OH}^-]_2$	-	amaieran	-	$[\text{OH}^-]_2 - [\text{H}_3\text{O}^+]_1$

Orduan hurrengoak dira gerta daitezken bi aukera:

$$1) K_a(\text{NH}_4^+/\text{NH}_3) > K_b(\text{Ac}^-/\text{HAc}) \Rightarrow [\text{H}_3\text{O}^+]_1 > [\text{OH}^-]_2 \Rightarrow$$

$$[\text{H}_3\text{O}^+] = [\text{H}_3\text{O}^+]_1 - [\text{OH}^-]_2$$

$$2) K_a(\text{NH}_4^+/\text{NH}_3) < K_b(\text{Ac}^-/\text{HAc}) \Rightarrow [\text{H}_3\text{O}^+]_1 < [\text{OH}^-]_2 \Rightarrow$$



Kasu honetan 2) aukera betetzen da: $K_b(\text{Ac}^-/\text{HAc}) = 10^{-9.35} > K_a(\text{NH}_4^+/\text{NH}_3) = 10^{-9.55}$
 Orduan $[\text{OH}^-]$ handiagoa izango da eta pHa basikoa (7 baino handiagoa).

Kontuan izanda: $[\text{H}_3\text{O}^+]_1 = (10^{-1} \cdot 10^{-9.55})^{1/2} = 10^{-5.275}$

$$[\text{OH}^-]_2 = (10^{-1} \cdot 10^{-9.35})^{1/2} = 10^{-5.175}$$

Beraz, azkenengo $[\text{OH}^-] = 10^{-5.822} \Rightarrow [\text{H}_3\text{O}^+] = 10^{-8.178} \Rightarrow \text{pH} = 8.178$

Orokorrean esan ahal da azido eta base ahula aldi batera agertzean horrelako orekak gertatuko dira eta pHa sortutako hidronio eta hidroxilo ioien araberakoa izango da:



Kontuz: hemen espezieen karga ez dago adierazita, baizik eta adierazpen orokorra da.

Ariketa 7

Azido azetiko-tan eta sodio azetato-tan 1M den litro bat disoluzio bat dugu. Zenbat ml HCl 1M gehitu behar zaio disoluzio honi, pH-a %5ean aldatzeko?

Datua: $K_a(\text{HAc}/\text{Ac}^-) = 10^{-4.65}$

Estrategia: disoluzio indargetzailea da

$$[\text{H}_3\text{O}^+] = 10^{-4.65} \frac{c(\text{HAc})}{c(\text{Ac}^-)} = 10^{-4.65} \frac{1}{1} = 10^{-4.65} = 2.2387 \cdot 10^{-5}$$

HCl gehitzerakoan, neutralizazioa: $\text{Ac}^- + \text{HCl} \Rightarrow \text{HAc} + \text{Cl}^-$

Beraz, $[\text{Ac}^-] \downarrow$, $[\text{HAc}] \uparrow \Rightarrow [\text{H}_3\text{O}^+] \uparrow$, $\text{pH} \downarrow$, $\Rightarrow \text{pH}_{\text{berria}} = 0.95 \text{pH}_{\text{zaharra}}$

$$\text{pH}_{\text{berria}} = 0.95 \cdot 4.65 = 4.4175 \Rightarrow [\text{H}_3\text{O}^+] = 10^{-4.4175}$$

Litro bat	Ac ⁻	HCl	HAc
Hasieran	1 mol	x mol	1 mol
Amaieran	(1-x) mol	-	(1+x) mol

$$[\text{H}_3\text{O}^+]_{\text{berria}} = 10^{-4.65} \frac{c(\text{HAc})_{\text{amaiera}}}{c(\text{Ac}^-)_{\text{amaiera}}}$$

$$10^{-4.4175} = 10^{-4.65} \frac{1+x}{1-x} \Rightarrow \frac{10^{-4.4175}}{10^{-4.65}} (1-x) = (1+x) \Rightarrow$$

$$10^{0.2325} - 10^{0.2325}x = 1+x \Rightarrow 1 - 10^{0.2325} = (1 + 10^{0.2325})x \Rightarrow$$

$$(10^{0.2325} = 0.5855)$$

$$x = \frac{1 - 0.5855}{1 + 0.5855} = 0.2614 \text{ mol HCl} \Rightarrow v_{\text{HCl}} = \frac{0.2614 \text{ mol}}{1 \text{ M}} = 0.2628 \text{ l}$$

262 mL HCl gehitu behar da pHa %5a aldatzeko!!


Emaitza bat dator disoluzio indargetzailea delako eta bolumen handia erabili behar da pHa gutxitan aldatzeko.

Ariketa 8

1.5 M den amonio nitrato disoluzio baten pHa kalkulatu.

Datua: $K_a(\text{NH}_4^+/\text{NH}_3) = 10^{-9.55}$

Estrategia: katioi ahul batez eta anioi sendo batez osatutako gatzen hidrolisia planteatu behar da. Beraz pHan bakarrik katioiaren orekak eragina izango du.



MB: $c(\text{NH}_4\text{NO}_3) = c(\text{NH}_4^+) = c(\text{NO}_3^-) = [\text{NO}_3^-]$

$c(\text{NH}_4^+) = [\text{NH}_4^+] + [\text{NH}_3]$

KB: $[\text{NH}_4^+] + [\text{H}_3\text{O}^+] = [\text{NO}_3^-] + [\text{OH}^-]$

Hurbilketa: $[\text{OH}^-] \ll [\text{NO}_3^-]$ beraz, **KB:** $[\text{NH}_4^+] + [\text{H}_3\text{O}^+] \approx [\text{NO}_3^-]$

$$\text{MB: } [\text{NH}_4^+] + [\text{NH}_3] = [\text{NO}_3^-]$$

Beraz, $[\text{H}_3\text{O}^+] \approx [\text{NH}_3]$ eta $c(\text{NH}_4^+) \approx [\text{NH}_4^+]$

$$K_a = \frac{[\text{NH}_3][\text{H}_3\text{O}^+]}{[\text{NH}_4^+]} = \frac{[\text{H}_3\text{O}^+]^2}{c(\text{NH}_4^+)}$$

$$10^{-9.55} = \frac{[\text{H}_3\text{O}^+]^2}{1.5} \Rightarrow [\text{H}_3\text{O}^+] = 2.056 \cdot 10^{-5} = 10^{-4.69} \Rightarrow \text{pH} = 4.69$$

Ariketa 9

0.1 M den azido azetiko disoluzio baten 10 ml ditugu. Kalkulatu:

a) pHa


b) 0.1 M den NaOH disoluzio baten 6 ml gehitu ondoren dagoen pHa

c) 0.1 M den NaOH disoluzio beraren beste 4 ml gehitu ondoren dagoen pHa

d) 0.1 M den NaOH disoluzio beraren beste 15 ml gehitu ondoren dagoen pHa

Datua: $K_a(\text{HAc}/\text{Ac}^-) = 10^{-4.65}$

a) **Estrategia:** azido ahul baten disoluzioa dugu



$$\text{MB: } c(\text{HAz}) = [\text{HAz}] + [\text{Az}^-]$$

$$\text{KB: } [\text{H}_3\text{O}^+] = [\text{Ac}^-] + [\text{OH}^-]$$

Hurbilketa 1 (azidoa delako) : $[\text{OH}^-] \ll [\text{Az}^-]$, beraz $\Rightarrow [\text{H}_3\text{O}^+] \approx [\text{Az}^-]$

Hurbilketa 2 (ahula delako): $c(\text{HAz}) \approx [\text{HAz}]$

$$K_a = \frac{[\text{Ac}^-][\text{H}_3\text{O}^+]}{[\text{HAc}]} = \frac{[\text{H}_3\text{O}^+]^2}{c(\text{HAc})}$$

$$10^{-4.65} = \frac{[\text{H}_3\text{O}^+]^2}{0.1} \Rightarrow [\text{H}_3\text{O}^+] = 10^{-2.82} \Rightarrow \text{pH} = 2.82$$

b) **Estrategia:** dugun azidoa basifikatzen dugu, neutralizazio erreakzioa sortaraziz. Kalkulatu behar dugu hasierako molak eta estekiometriari jarraituz zehaztuko dugu erreakzioaren amaieran disoluzio honetan egongo diren produktuak. Ondoren ea nahasketa berezia den edo ez aztertu behar dugu, pHa kalkulatzeko.

Beraz, 6 ml NaOH 0.1 M aurrekoari gehitzean, neutralizazioa



$\text{HAz} + \text{NaOH} \Rightarrow \text{NaAz} + \text{H}_2\text{O}$ edo, ioi ikuslea kenduta: $\text{HAz} + \text{OH}^- \Rightarrow \text{Az}^- + \text{H}_2\text{O}$

$$V(\text{HAc}) = 10 \text{ ml} \Rightarrow n(\text{HAc}) = 0.1 \text{ M} \times 10^{-2} \text{ l} = 1 \text{ mmol}$$

$$V(\text{NaOH}) = 6 \text{ ml} \Rightarrow n(\text{NaOH}) = 0.1 \text{ M} \times 6 \cdot 10^{-2} \text{ l} = 0.6 \text{ mmol}$$

V=16 ml	HAc	OH ⁻	Ac ⁻
hasieran	1 mmol	0.6 mmol	-
amaieran	0.4 mmol	-	0.6 mmol

Beraz,

$$c(\text{HAc}) = \frac{0.4 \cdot 10^{-3} \text{ mol}}{0.016 \text{ l}} = 0.025 \text{ M}$$

$$c(\text{Ac}^-) = \frac{0.6 \cdot 10^{-3} \text{ mol}}{0.016 \text{ l}} = 0.0375 \text{ M}$$

Hau disoluzio indargetzailea da

$$\text{Beraz, } [\text{H}_3\text{O}^+] = 10^{-4.65} \frac{c(\text{HAc})}{c(\text{Ac}^-)} = 10^{-4.65} \frac{0.025}{0.0375} = 10^{-4.83} \quad \text{pH}=4.83$$

c) **Estrategia:** dugun disoluzioa oraindik gehiago basifikatzen dugu. Abiapuntua espezie bakoitzaren molak dira eta oraingo honetan gehitutakoa kontuan hartuko dugu. Berrito estekiometriari jarraituz erreakzioaren amaieran disoluzio honetan egongo diren produktuak kalkulatu behar ditugu. Ondoren ea sustantzia bakarra edo nahasketa berezia den aztertu behar dugu, pHa kalkulatzeko.

4 ml NaOH 0.1 M gehitzean, $\text{HAc} + \text{NaOH} \Rightarrow \text{NaAc} + \text{H}_2\text{O}$ edo $\text{HAc} + \text{OH}^- \Rightarrow \text{Ac}^- + \text{H}_2\text{O}$

Disoluzioaren pHa ez da asko aldatu behar aurrekoa indargetzailea zen eta.

$$V(\text{NaOH}) = 4 \text{ ml} \Rightarrow n(\text{NaOH}) = 0.1 \text{ M} \times 4 \cdot 10^{-2} \text{ l} = 0.4 \text{ mmol}$$

V=20 ml	HAc	OH ⁻	Ac ⁻
hasieran	0.4 mmol	0.4 mmol	0.6 mmol
amaieran	-	-	1 mmol

0.6 + 0.4(berriak)

Orain,

$$K_b(\text{Ac}^- / \text{HAc}) = 10^{-9.35} \quad c(\text{Ac}^-) = \frac{10^{-3} \text{ mol}}{0.020 \text{ l}} = 0.05 \text{ M}$$

$$\text{MB: } c(\text{NaAc}) = c(\text{Na}^+) = \frac{[\text{Na}^+]}{c(\text{Na}^+)} = \frac{c(\text{Ac}^-) - [\text{HAc}] + [\text{Ac}^-]}{0.020 \text{ l}} = 0.05 \text{ M}$$

$$\text{KB: } [\text{Na}^+] + [\text{H}_3\text{O}^+] = [\text{Ac}^-] + [\text{OH}^-]$$

Hurbilketa: $[\text{Na}^+] \gg [\text{H}_3\text{O}^+]$ beraz, $[\text{H}_3\text{O}^+]$ mezprezatzten dugu eta $[\text{Na}^+]$ MB-tik KB-an sinplifikatuta: $[\text{OH}^-] \approx [\text{HAc}]$ eta gainera beti bezala $c(\text{Ac}^-) \approx [\text{Ac}^-]$.

$$K_b(\text{Ac}^- / \text{HAc}) = \frac{[\text{HAc}][\text{OH}^-]}{[\text{Ac}^-]} = \frac{[\text{OH}^-]^2}{c(\text{Ac}^-)}$$

$$10^{-9.35} = \frac{[\text{OH}^-]^2}{0.05} \Rightarrow [\text{OH}^-] = 10^{-5.32}$$

$$\Rightarrow [\text{H}_3\text{O}^+] = 10^{-8.68} \Rightarrow \text{pH} = 8.68$$

d) Estrategia: base gehiago botatzen dugu, berez base batez (Az-) osatuta dagoen sistemari. Batu behar ditugu jatorrizko desberdinak diren bi OH⁻ ren molak (zegoenak, azetatotik datorrenak eta gehitutakoak sodio hidroxidotik datorrenak). Ondoren pHa kalkula dezakegu.

15 ml NaOH 0.1 M aurrekoari gehitzean, bi basez osatutako sistema daukagu.

NaOH sendoa denez, $\text{NaOH} \Rightarrow \text{Na}^+ + \text{OH}^-$

beraz, $n(\text{OH}^-)_{\text{berria}} = n(\text{OH}^-) + n(\text{OH}^-)_{\text{gehitutakoa}}$

$$[\text{OH}^-]_{\text{berria}} = \frac{((10^{-5.32} \text{ M} \times 20 \cdot 10^{-3} \text{ l}) + (0.1 \text{ M} \times 15 \cdot 10^{-3} \text{ l})) \text{ mol}}{(20 + 15) \cdot 10^{-3} \text{ l}}$$

$$[\text{OH}^-]_{\text{berria}} \approx \frac{(0.1 \text{ M} \times 15 \cdot 10^{-3} \text{ l}) \text{ mol}}{(20 + 15) \cdot 10^{-3} \text{ l}} = 10^{-1.37} \text{ M}$$

$$\text{beraz } [\text{H}_3\text{O}^+] = 10^{-12.63} \Rightarrow \text{pH} = 12.63$$

Ariketa 10

1 mol NH_4Cl eta 1 mol NH_4OH dituen disoluzio baten litro bat daukagu.
Kalkulatu:

- a) pHa
 - b) 0.10 mol NaOH solido gehitu ondoren dagoen pHa
 - c) 0.10 mol NaOH solido ur puruaren litro batean disolbatuz gero dagoen pHa
 - d) 0.10 mol HCl solido gehitu ondoren dagoen pHa
 - e) 0.10 mol HCl solido ur puruaren litro batean disolbatuz gero dagoen pHa
- Datua: $K_a(\text{NH}_4^+/\text{NH}_3)=10^{-9.55}$
-

a) Disoluzio indargetzailea da

$$[\text{H}_3\text{O}^+] = 10^{-9.55} \frac{c(\text{NH}_4^+)}{c(\text{NH}_3)} = 10^{-9.55} \frac{1}{1} = 10^{-9.55}$$

$$\text{pH} = 9.55$$

b) 0.10 mol NaOH gehitu ondoren




$V_a=1 \text{ l}$	NH_4^+	OH^-	NH_3
hasieran	1 mol	0.1 mol	1 mol
amaieran	0.9	-	1.1 mmol

$$[\text{H}_3\text{O}^+] = 10^{-9.55} \frac{c(\text{NH}_4^+)}{c(\text{NH}_3)} = 10^{-9.55} \frac{0.9}{1.1} = 10^{-9.64}$$

$$\text{pH} = 9.64$$

c) 0.1 mol NaOH, 1l



d) 0.10 mol HCl gehitu ondoren



$V_a=1\text{ l}$	NH_3	H_3O^+	NH_4^+
hasieran	1 mol	0.1 mol	1 mol
amaieran	0.9 mol	-	1.1 mol

$$[\text{H}_3\text{O}^+] = 10^{-9.55} \frac{c(\text{NH}_4^+)}{c(\text{NH}_3)} = 10^{-9.55} \frac{1.1}{0.9} = 10^{-9.46}$$

$$\text{pH} = 9.46$$

c) 0.1 mol HCl, 1l

HCl sendoa denez, $\text{HCl} \Rightarrow \text{H}^+ + \text{Cl}^-$ edo $\text{HCl} + \text{H}_2\text{O} \Rightarrow \text{H}_3\text{O}^+ + \text{Cl}^-$

Beraz, $[\text{H}_3\text{O}^+] = c(\text{HCl}) = 10^{-1}\text{ M} \Rightarrow \text{pH} = 1$

Ariketa 11

0.1 M den NH_4Cl eta 0.1 M den NH_4OH dauzkagu disolbatuta disoluzio berean.

- Disoluzio horren 100 ml eta 0.1 M den NH_4OH daukan bigarren disoluzio baten 100 ml nahastuz gero, zein da pHa?
- lehen disoluzioaren 100 ml-ko bolumen bati, ur puru 100 ml gehitzen bazaizkio, zein da pHa?
- lehen disoluzioaren 100 ml-ko bolumen bati, ur puru 100 ml eta 100 mL HCl 0,1 M gehitzen bazaizkio, zein da pHa?

Datua: $K_a(\text{NH}_4^+/\text{NH}_3) = 10^{-9.55}$


Estrategia: azido ahul baten disoluzioa badago, gehitutako basearekin erreakzionatu dezake. Gainera base eta azido konjokatuak direla.

$$n(\text{NH}_4\text{Cl})_{\text{zegoena}} = 0.1\text{ M} \times 0.1\text{ l} = 0.01\text{ mol}$$

$$n(\text{NH}_4\text{OH})_{\text{zegoena}} = n(\text{NH}_3) = 0.1\text{ M} \times 0.1\text{ l} = 0.01\text{ mol}$$

$$n(\text{NH}_4\text{OH})_{\text{gehituta}} = n(\text{NH}_3) = 0.1\text{ M} \times 0.1\text{ l} = 0.01\text{ mol}$$

Base bat gehitu denez, neutralizazioa gertatuko da



V=200 ml	NH ₄ ⁺ Zegoena	NH ₃ gehituta	NH ₃ zegoena	NH ₄ ⁺
Hasieran	0.01 mol	0.01 mol	0.01 mol	
Amaieran	-	-	0.02 mol	0.01 mol

Beraz,

$$[\text{H}_3\text{O}^+] = 10^{-9.55} \frac{c(\text{NH}_4^+)}{c(\text{NH}_3)} = 10^{-9.55} \frac{0.01/V}{0.02/V} = 10^{-9.85}$$

$$\text{pH} = 9.85$$

b)100 ml ur gehitzean

Estrategia: disoluzio indargetzailea dugu eta aldaketa bakarra espezieen kontzentrazioa izango da, baina uraz diluzioak bi espeziei eragina bera egingo die. Beraz, hidronioaren kontzentrazioa ez da aldatuko, diluitu baino lehenarekin konparatuz gero. Hori klasean modu teoriko batean ikusi genuen.

$$n(\text{NH}_4\text{Cl}) = 0.1\text{M} \times 0.1\text{ l} = 0.01\text{ mol}$$

$$n(\text{NH}_3) = n(\text{NH}_3) = 0.1\text{M} \times 0.1\text{ l} = 0.01\text{ mol}$$

$$c(\text{NH}_4^+)_{2} = \frac{n(\text{NH}_4^+)}{V_2} = \frac{0.01\text{ mol}}{0.2\text{ l}} = 0.05 = \frac{c(\text{NH}_4^+)_{1}}{2}$$

$$c(\text{NH}_3)_{2} = \frac{n(\text{NH}_3)}{V_2} = \frac{0.01\text{ mol}}{0.2\text{ l}} = 0.05 = \frac{c(\text{NH}_3)_{1}}{2}$$

Beraz,

$$[\text{H}_3\text{O}^+] = 10^{-9.55} \frac{c(\text{NH}_4^+)}{c(\text{NH}_3)} = 10^{-9.55} \frac{0.05}{0.05} = 10^{-9.55}$$

$$\text{pH} = 9.55$$

c) Estrategia: disoluzio indargetzailea dugu eta alde batetik espezieen kontzentrazioa aldatuko (uraz diluitzean) eta bestetik botatako azidoak dagoen basearekin erreakzionatuko du.

Ur puru (100 ml) + HCl (0.1 M, 100 ml) gehitzean


$$V_0 = 0.1 \text{ l} + 0.1 \text{ l} + 0.1 \text{ l} = 0.3 \text{ l}$$

$$n(\text{NH}_4\text{Cl}) = 0.1 \text{ M} \times 0.1 \text{ l} = 0.01 \text{ mol}$$

$$n(\text{NH}_3) = n(\text{NH}_3) = 0.1 \text{ M} \times 0.1 \text{ l} = 0.01 \text{ mol}$$

$$n(\text{HCl}) = 0.1 \text{ M} \times 0.1 \text{ l} = 0.01 \text{ mol}$$

Azido bat gehitzean, neutralizazioa



$V_a = 0.3 \text{ l}$	NH_3	H_3O^+	NH_4^+
Hasieran	0.01 mol	0.01 mol	0.01 mol
Amaieran	-	-	0.02 mol

Beraz,

$$c(\text{NH}_4^+) = \frac{n(\text{NH}_4^+)}{V_0} = \frac{0.02 \text{ mol}}{0.3 \text{ l}} = 0.067 \text{ M}$$

$$c(\text{Cl}^-) = \frac{n(\text{NH}_4\text{Cl}) + n(\text{HCl})}{V_0} = \frac{0.01 \text{ mol} + 0.01 \text{ mol}}{0.3 \text{ l}} = 0.067 \text{ M}$$

MB: $c(\text{NH}_4\text{Cl}) = c(\text{NH}_4^+) = c(\text{Cl}^-) = [\text{Cl}^-]$

$$c(\text{NH}_4^+) = [\text{NH}_4^+] + [\text{NH}_3]$$

KB: $[\text{NH}_4^+] + [\text{H}_3\text{O}^+] = [\text{Cl}^-] + [\text{OH}^-]$

Hurbilketa: $[\text{OH}^-] \ll [\text{Cl}^-]$ beraz, **KB:** $[\text{NH}_4^+] + [\text{H}_3\text{O}^+] \approx [\text{Cl}^-]$

MB: $[\text{NH}_4^+] + [\text{NH}_3] = [\text{Cl}^-]$

Beraz, $[\text{H}_3\text{O}^+] \approx [\text{NH}_3]$ eta $c(\text{NH}_4^+) \approx [\text{NH}_4^+]$

$$K_a = \frac{[\text{NH}_3][\text{H}_3\text{O}^+]}{[\text{NH}_4^+]} = \frac{[\text{H}_3\text{O}^+]^2}{c(\text{NH}_4^+)}$$

$$10^{-9.55} = \frac{[\text{H}_3\text{O}^+]^2}{0.67} \Rightarrow [\text{H}_3\text{O}^+] = 10^{-5.36} \Rightarrow \text{pH} = 5.36$$

Ariketa 12


A, B eta C ontziak ditugu. A ontzian 300 ml HCN 0.10 M daude. B ontzian 200 ml KOH 0.15 M daude. C ontzian 100 ml HCl 0.15 M daude.

Ondokoa kalkulatu:

- A ontziko disoluzioaren pHa.
- A eta B ontziko disoluzioak nahastuz gero lortzen den disoluzio berriaren pHa.
- A, B eta C ontziko disoluzioak nahastuz gero lortzen den disoluzio berriaren pHa.

Datua: $K_a(\text{HCN}/\text{CN}^-) = 10^{-9.1}$

a) **Estrategia:** azido ahul batez osatutako sistema da.



MB: $c(\text{HCN}) = 0.10 \text{ M} = [\text{HCN}] + [\text{CN}^-]$

KB: $[\text{H}_3\text{O}^+] = [\text{OH}^-] + [\text{CN}^-]$

Hurbilketa KB: $[\text{OH}^-] \ll [\text{CN}^-]$, beraz, $[\text{H}_3\text{O}^+] \approx [\text{CN}^-]$ eta $c(\text{HCN}) \approx [\text{HCN}]$

$$K_a = \frac{[\text{CN}^-][\text{H}_3\text{O}^+]}{[\text{HCN}]} = \frac{[\text{H}_3\text{O}^+]^2}{c(\text{HCN})}$$

$$10^{-9.1} = \frac{[\text{H}_3\text{O}^+]^2}{0.15} \Rightarrow [\text{H}_3\text{O}^+] = 10^{-4.96} \Rightarrow \text{pH} = 4.96$$

0,10

5,05

b) **Estrategia:** azido ahula eta base sendoen arteko erreakzioa da, beraz neutralizazioa gertatuko da. Erreakzioa gertatu ondoren espezie basiko ahul bat dugu soberan (CN^-). Berari dagokion pHa kalkulatu behar da.

$$V_A + V_B = 500 \text{ ml}$$



KOH gehitzean, neutralizazioa $\text{HCN} + \text{KOH} \Rightarrow \text{KCN} + \text{H}_2\text{O}$ edo $\text{HCN} + \text{OH}^- \Rightarrow \text{CN}^- + \text{H}_2\text{O}$

$$n(\text{HCN}) = 0.1 \text{ M} \times 0.3 \text{ l} = 0.03 \text{ mol}$$

$$n(\text{KOH}) = 0.15 \text{ M} \times 0.2 \text{ l} = 0.03 \text{ mol}$$

$V_a = 0.5 \text{ l}$	HCN	OH^-	CN^-
hasieran	0.03 mol	0.03 mol	-
amaieran	-	-	0.03 mol

Beraz,

$$c(\text{CN}^-) = \frac{n(\text{CN}^-)}{V_0} = \frac{0.03 \text{ mol}}{0.5 \text{ l}} = 0.06 \text{ M}$$

$$c(\text{K}^+) = \frac{n(\text{K}^+)}{V_0} = \frac{0.03 \text{ mol}}{0.5 \text{ l}} = 0.06 \text{ M}$$

$$\text{MB: } c(\text{KCN}) = c(\text{K}^+) = [\text{K}^+] = c(\text{CN}^-)$$

$$c(\text{CN}^-) = [\text{HCN}] + [\text{CN}^-]$$

$$\text{KB: } [\text{K}^+] + [\text{H}_3\text{O}^+] = [\text{CN}^-] + [\text{OH}^-]$$

$$\text{Hurbilketa: } [\text{K}^+] \gg [\text{H}_3\text{O}^+] \text{ beraz, } \text{KB: } [\text{K}^+] \approx [\text{CN}^-] + [\text{OH}^-]$$

$$\text{MB: } c(\text{CN}^-) = [\text{K}^+] = [\text{HCN}] + [\text{CN}^-]$$

$$\text{Beraz, } [\text{HCN}] \approx [\text{OH}^-] \text{ eta } c(\text{CN}^-) \approx [\text{CN}^-]$$

$$K_a = 10^{-9.1} \Rightarrow K_b = 10^{-4.9} = \frac{[\text{HCN}][\text{OH}^-]}{[\text{CN}^-]} = \frac{[\text{OH}^-]^2}{c(\text{CN}^-)}$$

$$10^{-4.9} = \frac{[\text{OH}^-]^2}{0.06} \Rightarrow [\text{OH}^-] = 10^{-3.06} \Rightarrow [\text{H}_3\text{O}^+] = 10^{-10.94} \Rightarrow \text{pH} = 10.94$$

c) Estrategia: azido ahula, azido sendoa eta base sendoen arteko erreakzioa da, beraz lehenengo eta behin espezie sendoen arteko neutralizaziozko

erreakzioa gertatuko da, ondoren KOH soberan geratuz. Horretaz aparte, noski, eratzen da KCl gatza, baina ez du inolako eraginik pHan. Geroago base kantitate honek azido ahularekin erreakzionatzen du. Beraz bi erreakzio hauek gertatu eta gero disoluzioan geratzen diren espezieak disoluzio indargetzaile bat sortzen dute (HCN/CN⁻). Hurrengoan bi erreakzio banatuta aurkezten dira.

$$V_A + V_B + V_C = 600 \text{ ml}$$

$$n(\text{HCN}) = 0.1 \text{ M} \times 0.3 \text{ l} = 0.03 \text{ mol}$$

$$n(\text{KOH}) = 0.15 \text{ M} \times 0.2 \text{ l} = 0.03 \text{ mol}$$

$$n(\text{HCl}) = 0.15 \text{ M} \times 0.1 \text{ l} = 0.015 \text{ mol}$$

1. Lehenbizi azido eta base sendoen neutralizazioa:



V_a=0.6 l	HCl	KOH	KCl
Hasieran	0.015 mol	0.03 mol	-
Amaieran	-	0.015 mol	0.015 mol

2. KOH soberan dagoenez, HCN neutralizatuko du.



V_a=0.6 l	HCN	OH ⁻	CN ⁻
hasieran	0.03 mol	0.015 mol	-
amaieran	0.015 mol	-	0.015 mol

OHAR: 1 eta 2 pausuak batera eginez...



$V_a = 0.6 \text{ l}$	KOH	HCl	HCN	CN^-
Hasieran	0.03 mol	0.015 mol	0.03 mol	-
amaieran	-	-	0.015 mol	0.015 mol

Beraz, disoluzio indargetzailea geratzen da.

$$c(\text{HCN}) = \frac{n(\text{HCN})}{V_0} = \frac{0.015 \text{ mol}}{0.6 \text{ l}} = 0.025 \text{ M}$$

$$c(\text{CN}^-) = \frac{n(\text{CN}^-)}{V_0} = \frac{0.015 \text{ mol}}{0.6 \text{ l}} = 0.025 \text{ M}$$

Beraz,

$$[\text{H}_3\text{O}^+] = 10^{-9.1} \frac{c(\text{HCN})}{c(\text{CN}^-)} = 10^{-9.1} \frac{0.025}{0.025} = 10^{-9.1}$$

$$\text{pH} = 9.1$$

Ariketa 13

A eta B disoluzioak ditugu: A disoluzioa 0.25 g NaOH 500 ml uretan disolbatuz lortu da eta B disoluzioa 300 ml HClO 10^{-2} M da. A disoluziotik 40 ml eta B disoluziotik 125 ml hartzen dira eta 250 ml-tan diluitzen dira. Zein da pHa?

Datuak: $K_a(\text{HClO}/\text{ClO}^-) = 10^{-7.52}$, $P_m(\text{NaOH}) = 40 \text{ g} \cdot \text{mol}^{-1}$

Estrategia: Kalkulatu behar dugu erreakzionatzen duten espezie bakoitzaren molak eta gero estekiometriari jarraituz bilatzea zein geratzen da erreakzioaren amaieran eta ze disoluzio mota eratzen duten, disoluzio indargetzailea, hain zuzen ere.



$V_a=0.25 \text{ l}$	OH^-	HClO	ClO^-
hasieran	0.5 mmol	1.25 mmol	-
amaieran	-	0.75 mmol	0.5 mmol

Beraz, disoluzio indargetzailea daukagu.

$$[\text{H}_3\text{O}^+] = 10^{-7.52} \frac{c(\text{HClO})}{c(\text{ClO}^-)} = 10^{-7.52} \frac{0.75 \cdot 10^{-3} / V}{0.5 \cdot 10^{-3} / V} = 10^{-7.34}$$

$$\text{pH} = 7.34$$

Ariketa 14

Hurrengo disoluzioak indargetzaileak izango al dira?

- a) NaCl (50 ml, 10^{-3} M) + HCl (50 ml, 10^{-3} M)
- b) NaCl (50 ml, 10^{-3} M) + HCl (50 ml, 1 M)
- c) HCl (50 ml, 1 M)
- d) NaOH (50 ml, 10^{-3} M) + HAc (100 ml, 10^{-3} M)
- e) NaOH (100 ml, 10^{-3} M) + HAc (100 ml, 10^{-3} M)

Datua: $K_a(\text{HAc}/\text{Ac}^-) = 10^{-4.65}$

Estrategia: a, b eta c ez dira indargetzaileak HA/A^- bikote konjokatu ahula behar-beharrezkoa baita. Beste kasuetan aztertu behar da erreakzio gertatu ondoren ea horrelako bikotea dagoen edo ez.

d) $n(\text{NaOH}) = 0.05 \text{ l} \times 10^{-3} \text{ M} = 0.05 \text{ mmol}$

$$n(\text{HAc}) = 0.1 \text{ l} \times 10^{-3} \text{ M} = 0.1 \text{ mmol}$$

Beraz, $\text{NaOH} + \text{HAc} \Rightarrow \text{NaAc} + \text{H}_2\text{O}$

$V_a=0.150 \text{ l}$	NaOH	HAc	NaAc
hasieran	0.05 mmol	0.1 mmol	-
amaieran	-	0.05 mmol	0.05 mmol

Base ahul batez eta base sendo batez osatutako sistema da hau. Beraz, disoluzio indargetzailea da.

$$e) d) \quad n(\text{NaOH}) = 0.1 \text{ l} \times 10^{-3} \text{ M} = 0.01 \text{ mmol}$$

$$n(\text{HAc}) = 0.1 \text{ l} \times 10^{-3} \text{ M} = 0.01 \text{ mmol}$$

Beraz, $\text{NaOH} + \text{HAc} \Rightarrow \text{NaAc} + \text{H}_2\text{O}$

$V_a = 0.200 \text{ l}$	NaOH	HAc	NaAc
hasieran	0.1 mmol	0.1 mmol	-
amaieran	-	-	0.1 mmol

Base ahul batez osatutako sistema da hau. Beraz, ez da indargetzailea.

Ariketa 15

pH=9.8 duen disoluzio indargetzaile baten litro bat prestatu bahi dugu eta eskuragarri dauzkagun errektiboak ondokoak dira: NH_3 , HCl, NaCl, HAz eta NaOH. Guztien kontzentrazioa 0.1 M da. Nola prestatuko zenuke disoluzioa?

Datuak: $K_a(\text{NH}_4^+/\text{NH}_3) = 10^{-9.55}$ eta $K_a(\text{HAz}/\text{Az}^-) = 10^{-4.65}$

Estrategia: Hasteko, $\text{NH}_4^+/\text{NH}_3$ bikotea aukeratu behar da disoluzioaren pHa bere azidotetasunaren konstantetik gertu baitago. Emandako errektiboaren artean ez dago amonio ioia baina amoniako eta azido baten arteko errektzio ondoren sortuko da. Kontuan izan erabilitako azidoa ezin da azetikoa izatea, ahula baita eta azetato ioa, ere, disoluzioan izango dugu. Beraz aukeratuko dugu NH_3 eta HCl dira.

$$[\text{H}_3\text{O}^+] = K_a \frac{c(\text{NH}_4^+)}{c(\text{NH}_3)} = 10^{-9.8} = 10^{-9.55} \frac{c(\text{NH}_4^+)}{c(\text{NH}_3)}$$

$$\Rightarrow \frac{c(\text{NH}_4^+)}{c(\text{NH}_3)} = \frac{10^{-9.8}}{10^{-9.55}} = 10^{-0.25} = 0.56$$



NH_4^+ lortzeko ondoko erreakzioa egin beharko dugu:



$V_a=1 \text{ l}$	NH_3	HCl	NH_4Cl
hasieran	x	y	-
amaieran	x-y	-	y

$$\frac{c(\text{NH}_4^+)}{c(\text{NH}_3)} = \frac{n(\text{NH}_4^+)/V}{n(\text{NH}_3)/V} = 0.56 = \frac{y}{x-y}$$

$$\text{beraz, } 0.56(x-y) = y \Rightarrow 0.56x - 0.56y = y \Rightarrow 0.56x = 1.56y$$

$$y = 0.359x$$

$$x = 0.1 \text{ M} \cdot V_{\text{NH}_3}$$

$$y = 0.1 \text{ M} \cdot V_{\text{HCl}}$$

$$V_a = V_{\text{NH}_3} + V_{\text{HCl}} = 1 \text{ l}$$

$$\text{beraz } y = 0.1 \text{ M} \cdot (1 - V_{\text{NH}_3}) = 0.359x = 0.359 \cdot 0.1 \text{ M} \cdot V_{\text{NH}_3}$$

$$0.1 - 0.1V_{\text{NH}_3} = 0.0359V_{\text{NH}_3} \Rightarrow 0.1 = 0.1359V_{\text{NH}_3}$$

$$V_{\text{NH}_3} = 0.736 \text{ l} \Rightarrow V_{\text{HCl}} = 1 - V_{\text{NH}_3} = (1 - 0.736) \text{ l} = 0.264 \text{ l}$$

Ariketa 16

Zenbat gramo NaOH disolbatu behar ditugu 3M den HAz disoluzio baten 200 ml-tan, 500 ml-tara diluituz gero disoluzioaren pH=4.1 izan dadin?

Datua: $K_a(\text{HAz}/\text{Az}^-) = 10^{-4.65}$


Estrategia: NaOH eta HAz- ren kantitateak estekiometrikoak badira bakarrik azetatoa izango dugu disoluzioan eta basea izanik pHa izango da 7 baino handiagoa. Beraz modu bakarra pHa 4,1 izateko disoluzio indargetzaile azido bat sortzea izango da, hau da HAz/Az⁻ osatutako nahasketa. Beraz, disoluzio

indargetzaile bat prestatu behar da, kontzentrazioen arteko erlazioa zehatza izanik.

$$[\text{H}_3\text{O}^+] = K_a \frac{c(\text{HAc})}{c(\text{Ac}^-)} = 10^{-4.1} = 10^{-4.65} \frac{c(\text{HAc})}{c(\text{Ac}^-)}$$

$$\frac{c(\text{HAc})}{c(\text{Ac}^-)} = 10^{0.55} = 3.55$$

NaOH gehitzean, neutralizazioa gertatzen da.



$V_a=0.5 \text{ l}$	NaOH	HAc	NaAc
hasieran	x	y	-
amaieran	-	y-x	x

$$\frac{c(\text{HAc})}{c(\text{Ac}^-)} = 3.55 = \frac{(y-x)/V}{x/V} = \frac{y-x}{x}$$

$$3.55x = y - x \Rightarrow y = 4.55x$$

$$x = \frac{m(\text{NaOH})}{P_m(\text{NaOH})}$$

$$y = 3 \text{ M} \cdot 0.2 \text{ l} = 0.6 \text{ mol}$$

$$x = \frac{0.6 \text{ mol}}{4.55} = 0.132 \text{ mol}$$

$$m(\text{NaOH}) = x \cdot P_m(\text{NaOH}) = 0.132 \text{ mol} \cdot 40 \text{ g} \cdot \text{mol}^{-1} = 5.28 \text{ g}$$

Ariketa 17

Metilo gorria indikatzailearen espezie gorria ez dago ionizatua eta horia, bai. Espezie gorriaren %6a eta horiaren %12a (ehuneko molarra) ezin badira ikusi, zein da indikatzaile horren pH-tartea?

Datua: $K_a(\text{HIn}/\text{In}^-) = 10^{-5.1}$



Datuen arabera: HIn espeziea gorria da; eta In^- delakoa, horia. Demagun $C_{\text{osoa}}=1 \text{ M}$.

	$[\text{HIn}]$	$[\text{In}^-]$
$\text{pH} > \text{pK}_a$	0.06	0.94
$\text{pH} < \text{pK}_a$	0.88	0.12

$$[\text{H}_3\text{O}^+] = K_a \frac{[\text{HIn}]}{[\text{In}^-]} = 10^{-5.1} \frac{0.06}{0.94} = 10^{-6.29}$$

$$[\text{H}_3\text{O}^+] = K_a \frac{[\text{HIn}]}{[\text{In}^-]} = 10^{-5.1} \frac{0.88}{0.12} = 10^{-4.23}$$

$$4.23 < \text{pH} < 6.29$$


Ariketa 18

Aspirinaren osagai bat azido monoprotiko azetilsalizilikoa (HA) da eta horren 500 mg dago aspirina bakoitzean. Pilula bat uretan disolbatzean 100 mL-ko disoluzioa bete arte, 0,1 M den KOH disoluzioaren 27,8 mL erabiltzen dira baloratzeko. Hau jakinda kalkulatu:

- aspirinaren pisu molekularra.
- baliokide-puntuaren pHa.
- behin baliokide-puntua lortuta eta 0,5 M den KOH disoluzioaren 10 mL gehituz gero, zein izango den disoluzioaren pHa.

Datua: $K_a(\text{HA}/\text{A}^-) = 3,3 \cdot 10^{-4}$

- Estrategia:** Azido monoprotiko eta gatz monobasiko ditugu, beraz gastatuko diren baliokideak eta molak berdinak izango dira. Baseen molak kalkulatu azidoen molak ditugu eta pisu molekularra kalkula dezakegu.



500 mg HA 100 mL H_2O

27,8 mL KOH 0,1 M



$$27,8 \times 0,1 \text{ M} = 2,78 \text{ mmol} = \frac{500 \text{ mg}}{P_m}$$

$$P_m = \frac{500 \text{ mg}}{2,78} = 179,85$$

b) **Estrategia:** baliokide-puntuan pHa kalkulatzeko planteatzen da erreakzioa eta KA-ren molen arabera pHa kalkulaten da. Beheko taulan kalkuluak egiteko bi metodoa dugu. Ezkerreko hutsunean balantzeak erabiliz eta eskuinekoan betiko metodoa erabiliz. Emaiza bera da, jakina.


2,78 mmol KOH eta 2,78 mmol HA gastatzen dira balorazioan, eta bolumena 127,8 ml-koa da.

	KOH	+	HA	→	KA	+	H ₂ O
Hasieran	2,78 mmol		2,78 mmol		0		0
Amaieran	0 mmol		0 mmol		2,78 mmol		2,78 mmol


Beraz: 2,78 mmol de KA 127,8 ml-tan daude eta kontzentrazioa hurrengoa izango da:

$$C = \frac{2,78 \text{ mg}}{127,8 \text{ mL}} = 0,0218 \text{ M}$$

Base bat izanik



$$K_b = \frac{K_w}{K_a} = \frac{[HA][OH^-]}{[Acet^-]}$$




Masa-balantzea: $C_{Acet^-} = 0,0218 = [Acet^-] + [HA]$

Karga-balantzea: $[HA] + [H_3O^+] = [OH^-]$

4 ekuazio eta 4 ezezagun ditugu.

Base ahula da beraz [HA] mezprezatzen dugu [Acet⁻]-arekiko.

$$C_{Acet^-} = 0,0218 = [CN^-]$$



0,0218

0,0218 - X

X X

$$K_b = \frac{K_w}{K_a} = \frac{10^{-14}}{3,3 \times 10^{-4}} = 3,03 \times 10^{-11} =$$



Basea izanik $[H_3O^+]$ mezpreza dezakegu

$$[HAcet] = [OH^-]$$

$$K_b = \frac{K_w}{K_a} = \frac{10^{-14}}{3,3 \times 10^{-4}} = 3,79 \times 10^{-10} = \frac{[OH^-]^2}{0,218}$$

Beraz: $[OH^-] = \sqrt{0,0218 \times 3,03 \times 10^{-11}} = 2,128 \times 10^{-7}$

Orduan : $pOH = 6,09$, **pH = 7,91**


$$\frac{X^2}{0,0218 - X} \approx \frac{X^2}{0,0218}$$

$$[OH^-] = X = \sqrt{0,0218 \times 3,03 \times 10^{-11}} = 2,128 \times 10^{-7}$$

$pOH = 6,09$, **pH = 7,91**

c)**Estrategia:** orain azidoa neutralizatzeko beharrezkoa den baino base gehiago botatzen da. Beraz pHa oso basikoa izan behar da. Erabilitako kantitateak:

100 mL con 2,78 mmol HA	2,78 mmol	HAcet
27,8 mL KOH 0,1 M	2,78 mmol	KOH
10 mL de KOH 0,5 M	5 mmol	KOH



2,78 mmol KA base ahula

5 mmol KOH base sendoa

137,8 mL-ko bolumen batean disolbatuta. A- ioiaren hidrolisiari dagokion OH^- -ren kontzentrazioa mezpreza daiteke, base sendo batetik datorrenarekiko konparatuta askoz txikiagoa izango delako. Beraz disoluzioaren pHa base sendoarena da.

5 mmol

$$[KOH] = \frac{5 \text{ mol}}{137 \text{ mL}} = 0,0364 \text{ M}$$

$$pOH = 1,43$$

$$pH = 12,56$$

Ariketa 19

NH_3 eta NH_4Cl disoluzioez osatutako nahasketa dugu, kontzentrazioak 0.17M eta 0,187M izanik, hurrenez hurren. Disoluzioaren bolumena 200 mL-koa da eta HCl 0,1M den 20 mL gehitzen diogu. Zein da pH-aren aldaketa?

Datua: $K_b(\text{NH}_3/\text{NH}_4^+) = 10^{-4,74}$

- a) **Estrategia:** Disoluzio indargetzaile basikoa dugu. Lehendabizi kalkulatu dugu dagokion pHa eta gero planteatu behar dugu ze nolako erreakzioa gertatuko den azidoa gehitzean, norantz joango da erreakzioa.





$$K_b = \frac{[\text{NH}_4^+][\text{OH}^-]}{[\text{NH}_3]}$$

$$[\text{OH}^-] = K_b \cdot \frac{[\text{NH}_3]}{[\text{NH}_4^+]} = 10^{-4,75} \frac{0,17}{0,18}$$

$$\text{pH} = 9,21$$

- HCl gehitzean:



Beraz NH_3 galtzen da eta NH_4^+ eratzten da.

$V_a = 0.220 \text{ l}$	HCl	NH_3	NH_4^+
hasieran	$2 \cdot 10^{-3} \text{ mol}$	0,034 mol	0,037 mol
amaieran	-	0,032 mol	0,039 mol



$$C_{NH_3} = \frac{0,032 \text{ mol}}{0,220 \text{ L}} = 0,145 \text{ M}$$

$$C_{NH_4^+} = \frac{0,039 \text{ mol}}{0,220 \text{ L}} = 0,177 \text{ M}$$

$$[OH^-] = Kb \cdot \frac{[NH_3]}{[NH_4^+]} = 10^{-4,75} \frac{0,145}{0,177}$$

$$\text{pH} = 9,17$$


$$\Delta\text{pH} = 9,21 - 9,17 = 0,04 \rightarrow \% 0,43$$

Azido-base ariketa

Azido azetiko disoluzio bat daukagu, molaritatea 0.5 izanik (1. disoluzioa)

1. disoluzioaren pHa kalkulatu
1. disoluzioaren 10 mL-ari gehitzen diogu 5 mL NaOH (0.5 M). 2. disoluzio honen pHa kalkulatu.
2. disoluzioari gehitzen diogu beste 5 mL NaOH (0.5 M). 3. disoluzio honen pHa kalkulatu.
3. disoluzioari gehitzen diogu beste 5 mL NaOH (0.5 M). 4. disoluzio honen pHa kalkulatu .
- Kalkulatutako pHaren balioak ondoko grafikoan irudikatu, eta marraztu (gutxi gora behera) nolakoa izango zen balorazio honen kurba osoa.

Datuak: $K_a (\text{HAc}/\text{Ac}^-) = 10^{-4,76} = 1,74 \times 10^{-5}$




Erantzunak:

- pH= 2,53
- pH= 4,76
- pH= 9,08
- pH= 13,00

a) 0,5 M de HAc K_a (HAc/Ac⁻) = $10^{-4,76} = 1,74 \times 10^{-5}$.

HAc 0,5 M, azido ahula



$$K_a = 1,74 \times 10^{-5} = \frac{[\text{Ac}^-][\text{H}_3\text{O}^+]}{[\text{HAc}]} = \frac{X^2}{0,5 - X} \sim$$

$$\frac{X^2}{0,5}$$


$$[\text{H}^+] = X = \sqrt{0,5 K_a} = 2,94 \times 10^{-3}$$

$$\text{pH} = 2,53$$

b) 1. disoluzioaren 10 mL-ari gehitzen diogu 5 mL NaOH (0.5 M)

10 mL de HAc 0,5 M


5 mL de NaOH 0,5 M



Disoluzio indargetzailea dugu

$$[\text{HAz}] = \frac{2,5}{15} = 0,166 \text{ M}$$

$$[\text{NaAz}] = \frac{2,5}{15} = 0,166 \text{ M}$$



$$K_a = 1,74 \times 10^{-5} = \frac{[\text{Ac}^-][\text{H}_3\text{O}^+]}{[\text{HAc}]} = \frac{(0,166 + X) X}{0,166 - X} \sim$$


$$\frac{0,166 X}{0,166} = X = [\text{H}_3\text{O}^+]$$

$$\text{pH} = -\log K_a = 4,76$$


c) 2. disoluzioari gehitzen diogu beste 5 mL NaOH (0.5 M)

10 mL de HAc 0,5 M

10 mL de NaOH 0,5 M



$$[\text{NaAc}] = \frac{5}{20} = 0,25 \text{ M} \text{ Base ahula}$$



$$K_b = \frac{K_w}{K_a} = \frac{10^{-14}}{1,75 \times 10^{-5}} = 10^{-9,24} = \frac{X^2}{0,25 - X} \sim \frac{X^2}{0,25}$$

$$[\text{OH}^-] = X = \sqrt{0,25 K_b} = 1,199 \times 10^{-6}$$


$$\text{pOH} = 4,92$$

$$\text{pH} = 14 - 5 = 9,08$$

d) 3. disoluzioari gehitzen diogu beste 5 mL NaOH (0.5 M)

10 mL de HAc 0,5 M

15 mL de NaOH 0,5 M



Bi base ditugu, bata sendoa (NaOH) eta bestea ahula (Ac⁻). Base ahula mezprezaten dugu.

$$[\text{NaOH}] = \frac{2,5}{25} = 0,1 \text{ M}$$

$$[\text{OH}^-] = 0,1 \quad \text{pOH} = 1 \quad \boxed{\text{pH} = 13}$$

04. GAIA. ERREDOX SISTEMAK. ARIKETAK.

1. Erredox doiketa
2. Estekiometria
3. Pilak eta oreka
4. Erredox egonkortasuna
5. Erredox diagramak

Farmaziako gradua 1. maila

Kimika Orokorra eta Ez-organikoa

2019/20 kurtsoa

Hurrengo erreodox erreakzio hauek idatzi eta doitu

- 1.– Azido sulfuriko ingurunean potasio permanganatoak ur oxigenatua oxidatzen du, oxigeno eta Mn(II)-ren gatza emanez.
- 2.– Azido klorhidriko ingurunean potasio permanganatoak ur oxigenatua oxidatzen du, oxigeno eta Mn(II)-ren gatz bat emanez.
- 3.– Potasio permanganatoaren erredukzioaren bidez kloro espeziea lortzen da Mn(II) eratuz eta agente erreduzitzailea azido klorhidrikoa izanik.
- 4.– Merkurio(II) kloruroa bario fosfatodiazidoarekin erreakzionatzen du azido fosforikoa, bario kloruroa, dimerkurio dikloruroa edo kalomelanoz izendako konposatua eta azido klorhidrikoa emanez.
- 5.– Sodio sulfitoz eta sodio sulfitoazidoz osatutako nahasketa bat dugu. Iodo lortzeko asmoz sodio iodatoarekin erreakzioarazten du.
- 6.– Cerio(IV) sulfatoak hidrogeno peroxidoaren erasoagatik erreduzitzen du cerio(III) sulfatoa emanez.
- 7.– Cerio(IV) sulfatoak azido oxalikoaren erasoagatik erreduzitzen du cerio(III) sulfatoa emanez.
- 8.– Sulfato ferrosoak azido hipobromosoarekin erreakzionatzen du sulfato ferrikoa eta azido bromhidrikoa emanez, azido sulfurikoaren ingurunean.
- 9.– Oxido kuprikoa oxido kuprosora arte erreduzitzen da, batera azido oxalikoa karbono dioxidora oxidatzen den batera.
- 10.– Zinc metalikoa azido nitrikoan disolbatzen da amonio nitratoa eratuz.
- 11.– Azido sulfuriko ingurunean potasio bromuroa potasio bromatora oxidatzen da. Prozesu honetan potasio dikromatoa Cr(III)-ra erreduzitzen da.
- 12.– Potasio hipokloritoa ur-ingurunean kloruro ioian eta potasio kloratoan dismutatzen da.
- 13.– Azido nitrikoak azido sulfhidrikoa sufrera oxidatzen du, aldi berean oxido nitroso emanez.
- 14.– Potasio dikromatoak azido klorhidrikoarekin erreakzionatzen du kloroa eta Cr(III) eratuz.
- 15.– Potasio dikromatoak azido sulfurikoaren ingurunean erreduzitzen da potasio eta kromo(III) sulfato gatz bikoitza eratuz, sufre dioxidoarekin erreakzionatuz gero.
- 16.– Sulfato kuprikoaren eta azido nitrikoaren arteko erreakzioa gertatzen da, sufrea eta nitrogeno monoxidoa emateko.
- 17.– Manganeso dioxidoaren eta azido klorhidrikoaren arteko erreakzioa gertatzen da. Kontuan izan kloroa eta Mn(II) produktuak direla.
- 18.– Azido nitrikoak kloruro merkurioso oxidatzen du, aldi berean nitrógeno monoxidoa sortaraziz.
- 19.– Azido klorhidrikoa ingurunea izanik eta azido iodhidriko presentziaz potasio nitritoak oxidatzaile gisa jokatzen du nitrogeno monoxidora erreduzituz.
- 20.– Estainua eta azido nitrikoa nahastean azido metaestainikoarekin batera nitrogeno monoxidoa eta nitrogeno dioxidoaren nahasketa bat(3/8 bolumenetan) erazten dira.
- 21.– Azido klorhidrikoaren ingurunean potasio nitritoak azido sulfhidrikoaren oxidazioari dagokion erreakzioa.
- 22.– Sodio hidroxidoaren ingurunean hidrogeno peroxidoak Kromo(III) hidroxidoari oxidatzen du, sodio cromatoa eratuz.
- 23.– Potasio hidroxidoaren ingurunean zinkak eta zilar artseniatoak erreakzionatzen dute artsinoa, zilarra eta zinkato ioia emanez.
- 24.– Sodio hidroxidoaren ingurunean hidrogeno peroxidoak oxido kromikoa oxidatzen du, sodio cromatoa eratuz.
- 25.– Zinka sodio hidroxidoan disolbaketaren prozesua.
- 26.– Aluminio metalikoa sodio hidroxido ingurunean disolbatzen da.
- 27.– Sodio hidroxido ingurunean zinkak sodio nitratoa amoniako bihurtzen du erredukziozko prozesu baten bidez.






- 28.– Sodio hidroxido ingurunean kloroa dismutatzen da kloruroa eta kloratoa emanez.
- 29.– Sulfuro artseniosoaren eta azido nitrikoaren arteko erreakzioa gertatzen da azido artsenikoa, azido sulfurikoa eta nitrógeno monoxidoa eratuz.
- 30.– Sulfuro artsenikoa eta azido nitrikoa nahasten dira artsenikoa, azido sulfurikoa eta nitrógeno dioxidoa eratuz.
- 31.– Azido klorhidriko ingurunean kloruro ferrosoak tetrahidroxovanadio(III) kloruroarekin erreakzionatzen du kloruro ferrikoa eta vanadilo kloruroa emanez.
- 32.– Sulfuro merkurikoak azido nitriko eta azido klorhidrikoarekin erreakzionatzen du hidrogeno tetra-kloromercuriato(II), sufrea eta nitrógeno monoxidoa emanez.
- 33.– Tetraminkobre(II) kloruroak, $[\text{Cu}(\text{NH}_3)_4]\text{Cl}_2$ potasio zianuroarekin erreakzionatzen du potasio tri-zianokuprato(I) $\text{K}_2[\text{Cu}(\text{CN})_3]$, amoniako, amonio kloruroa eta potasio cianato(KCNO) emanez.
- 34.– Sodio hidroxido ingurunean kromo(III) ioduroak eta kloro molekularrak erreakzionatzen dute sodio kromatoa, sodio periodatoa eta sodio kloruroa emanez.
- 35.– Arseniko sulfuroa(As_2S_3) sodio nitritoarekin eta sodio karbonatoarekin berotzean sodio artseniatoa (Na_3AsO_4), sodio sulfatoa, sodio nitritoa eta karbono dioxidoa eraten dira.
- 36.– Hidrogenokarbonatoaren ingurune basikoan iodoak sodio artsenitoarekin(NaAsO_2) erreakzionatzen du artseniatoa eta ioduroa emanez.
- 37.– Sodio karbonatoaren ingurunean oxido kromikoak potasio nitratoarekin erreakzionatzen du kromatoa, nitritoa eta karbono dioxidoa emanez.
- 38.– Burdina(II) sulfuroa edo pirita izendako konposatuaren tostazioa.

Erantzunak






- 1.– $2 \text{KMnO}_4 + 5 \text{H}_2\text{O}_2 + 3 \text{H}_2\text{SO}_4 \longrightarrow 2 \text{MnSO}_4 + 5 \text{O}_2 + \text{K}_2\text{SO}_4 + 8 \text{H}_2\text{O}$
- 2.– $2 \text{KMnO}_4 + 5 \text{H}_2\text{O}_2 + 6 \text{HCl} \longrightarrow 2 \text{MnCl}_2 + 5 \text{O}_2 + 2 \text{KCl} + 8 \text{H}_2\text{O}$
- 3.– $2 \text{KMnO}_4 + 16 \text{HCl} \longrightarrow 2 \text{MnCl}_2 + 2 \text{KCl} + 5 \text{Cl}_2 + 8 \text{H}_2\text{O}$
- 4.– $8 \text{HgCl}_2 + \text{Ba}(\text{H}_2\text{PO}_2)_2 + 4 \text{H}_2\text{O} \longrightarrow 4 \text{Hg}_2\text{Cl}_2 + 2 \text{H}_3\text{PO}_4 + \text{BaCl}_2 + 6 \text{HCl}$
- 5.– $2 \text{NaIO}_3 + 3 \text{Na}_2\text{SO}_3 + 2 \text{NaHSO}_3 \longrightarrow \text{I}_2 + 5 \text{Na}_2\text{SO}_4 + \text{H}_2\text{O}$
- 6.– $2 \text{Ce}(\text{SO}_4)_2 + \text{H}_2\text{O}_2 \longrightarrow \text{Ce}_2(\text{SO}_4)_3 + \text{H}_2\text{SO}_4 + \text{O}_2$
- 7.– $2 \text{Ce}(\text{SO}_4)_2 + \text{H}_2\text{C}_2\text{O}_4 \longrightarrow \text{Ce}_2(\text{SO}_4)_3 + 2 \text{CO}_2 + \text{H}_2\text{SO}_4$
- 8.– $2 \text{FeSO}_4 + \text{HBrO} + \text{H}_2\text{SO}_4 \longrightarrow \text{Fe}_2(\text{SO}_4)_3 + \text{HBr} + \text{H}_2\text{O}$
- 9.– $2 \text{CuO} + \text{H}_2\text{C}_2\text{O}_4 \longrightarrow \text{Cu}_2\text{O} + 2 \text{CO}_2 + \text{H}_2\text{O}$
- 10.– $4 \text{Zn} + 10 \text{HNO}_3 \longrightarrow \text{NH}_4\text{NO}_3 + 4 \text{Zn}(\text{NO}_3)_2 + 3 \text{H}_2\text{O}$
- 11.– $\text{KBr} + \text{K}_2\text{Cr}_2\text{O}_7 + 4 \text{H}_2\text{SO}_4 \longrightarrow \text{KBrO}_3 + \text{Cr}_2(\text{SO}_4)_3 + \text{K}_2\text{SO}_4 + 4 \text{H}_2\text{O}$
- 12.– $3 \text{KClO} \longrightarrow 2 \text{KCl} + \text{KClO}_3$
- 13.– $2 \text{HNO}_3 + 3 \text{H}_2\text{S} \longrightarrow 2 \text{NO} + 3 \text{S} + 4 \text{H}_2\text{O}$
- 14.– $\text{K}_2\text{Cr}_2\text{O}_7 + 14 \text{HCl} \longrightarrow 2 \text{CrCl}_3 + 3 \text{Cl}_2 + 2 \text{KCl} + 7 \text{H}_2\text{O}$
- 15.– $\text{K}_2\text{Cr}_2\text{O}_7 + 3 \text{SO}_2 + \text{H}_2\text{SO}_4 \longrightarrow 2 \text{KCr}(\text{SO}_4)_2 + \text{H}_2\text{O}$
- 16.– $3 \text{CuS} + 8 \text{HNO}_3 \longrightarrow 3 \text{S} + 2 \text{NO} + 3 \text{Cu}(\text{NO}_3)_2 + 4 \text{H}_2\text{O}$
- 17.– $\text{MnO}_2 + 4 \text{HCl} \longrightarrow \text{Cl}_2 + \text{MnCl}_2 + 2 \text{H}_2\text{O}$
- 18.– $3 \text{Hg}_2\text{Cl}_2 + 8 \text{HNO}_3 \longrightarrow 3 \text{HgCl}_2 + 3 \text{Hg}(\text{NO}_3)_2 + 2 \text{NO} + 4 \text{H}_2\text{O}$
- 19.– $2 \text{KNO}_2 + 2 \text{HI} + 2 \text{HCl} \longrightarrow 2 \text{NO} + \text{I}_2 + 2 \text{KCl} + 2 \text{H}_2\text{O}$
- 20.– $17 \text{Sn} + 44 \text{HNO}_3 \longrightarrow 17 \text{H}_2\text{SnO}_3 + 12 \text{NO} + 32 \text{NO}_2 + 5 \text{H}_2\text{O}$
- 21.– $2 \text{KNO}_2 + \text{H}_2\text{S} + 2 \text{HCl} \longrightarrow 2 \text{NO} + \text{S} + 2 \text{KCl} + 2 \text{H}_2\text{O}$

- 22.– $2 \text{Cr(OH)}_3 + 3 \text{H}_2\text{O}_2 + 4 \text{NaOH} \longrightarrow 2 \text{Na}_2\text{CrO}_4 + 8 \text{H}_2\text{O}$
- 23.– $11 \text{Zn} + 2 \text{Ag}_3\text{AsO}_4 + 22 \text{KOH} \longrightarrow 2 \text{AsH}_3 + 6 \text{Ag} + 11 \text{K}_2\text{ZnO}_2 + 8 \text{H}_2\text{O}$
- 24.– $\text{Cr}_2\text{O}_3 + 3 \text{H}_2\text{O}_2 + 4 \text{NaOH} \longrightarrow 2 \text{Na}_2\text{CrO}_4 + 5 \text{H}_2\text{O}$
- 25.– $\text{Zn} + 2 \text{NaOH} \longrightarrow \text{Na}_2\text{ZnO}_2 + \text{H}_2$
- 26.– $2 \text{Al} + 2 \text{NaOH} + 2 \text{H}_2\text{O} \longrightarrow 2 \text{NaAlO}_2 + 3 \text{H}_2$
- 27.– $4 \text{Zn} + \text{NaNO}_3 + 7 \text{NaOH} \longrightarrow 4 \text{Na}_2\text{ZnO}_2 + \text{NH}_3 + 2 \text{H}_2\text{O}$
- 28.– $3 \text{Cl}_2 + 6 \text{NaOH} \longrightarrow 5 \text{NaCl} + \text{NaClO}_3 + 3 \text{H}_2\text{O}$
- 29.– $3 \text{As}_2\text{S}_3 + 28 \text{HNO}_3 + 4 \text{H}_2\text{O} \longrightarrow 6 \text{H}_3\text{AsO}_4 + 9 \text{H}_2\text{SO}_4 + 28 \text{NO}$
- 30.– $\text{As}_2\text{S}_5 + 30 \text{HNO}_3 \longrightarrow 2 \text{As} + 5 \text{H}_2\text{SO}_4 + 30 \text{NO}_2 + 10 \text{H}_2\text{O}$
- 31.– $\text{FeCl}_2 + [\text{V(OH)}_4]\text{Cl} + 2 \text{HCl} \longrightarrow \text{FeCl}_3 + \text{VOCl}_2 + 3 \text{H}_2\text{O}$
